

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA. Operazioak gerta daitekeenaren «aurrerapena» direla ohartarazi du Tel Aviveko Armadak. Azken erasoaldiak indarkeria gehiago ekarriko duela eta su-etena suntsitzea xede duen «probokazioa» dela nabarmendu du PANek.

Erredakzioa | DONOSTIA

Palestinaren aurka martxan jarritako erasoaldiari eutsi zion Israelek atzo, eta Armadak Gazako nazioarteko aireportuko pista suntsitu, hamabi palestinatar atxilotu eta Gazako errepide nagusia moztu zuen. Hainbat hiri bakartuta gelditu ziren. Joan den urteko abenduaren 4an Israelek egindako antzeko eraso batek Gazako aireportuan eragindako kalteak konpontzeko lanak eten zituzten tankeek eta buldozerrek atzoko operazioan. Eraso horiek egoera okertzen bada etorkizunean gerta daitekeenaren «aurrerapena» zirela ohartarazi zuen Armadak.

Israelgo soldaduak Zisjordaniako Ibba —Nabulusetik gertu— eta Siluad —Ramala iparraldean— herrixketan sartu eta ustezko Hamaseko ekintzailer bat eta Al Fatako bi kide preso eraman zituzten. Beste zortzi palestinatar Gazako Rafa hiritik gertu atzeman zituzten. Arma trafikoan nahastuta egotea egotzi diete azken horiei. Era berean, tankeak Rafan ere sartu ziren eta hainbat errepide suntsitu zituzten.

Eraso horiek su-etena suntsitzeko «probokazio ekintzak» zirela salatu zuen PAN Palestinako Aginte Nazionalak. «Indarkeria eta tentsio handiagoa besterik ez ditu eragingo Israelen jarrerak», nabarmendu zuen PANeko presidente Jasser Arafaten aholkulari Nabil Abu Rudainak.

Tel Aviveko gobernuaren arabera, ordea, Armadak ez du operazioak egin beste irtenbiderik izan, Arafatek ez baitu indarkeriaren erantzuleak atxilotzeko nahikoa egin. Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen bertan behera utzi zituen herenegun gaeen PANekiko kontaktuak, baina horrek segurtasun alorreko elkarlanari ez diola eragingo iragarri zuen.

Armaz betetako ontziaren auziari eutsi nahian

Joan den astean Itsaso Gorrian atzemandako zortzi tona arma zeramatzen ontziaren auziari ahalik eta etekin gehien ateratzen saiatzen ari da Sharonen gobernuak. Hala, herenegun Rehavam Zeevi Israelgo ministro ultraeskuindarraren hiltzaileak atxilotu arte Arafati Ramalatik irteten ez ziola utziko iragarri ostean, hori egiteaz gain PANek ontziaren arduradunak ere atzeman beharko zituela jakinarazi zuen Sharonen atzo.

Erasoekin jarraituz, Israelek Gazako aireportua suntsitu eta hamaika palestinatar atxilotu ditu

Gazako errepide nagusia moztu ostean, herri ugari bakartuta utzi ditu Armadak



JOCKEL FINCK / AP

Gazako nazioarteko aireportuko pista, Israelgo Armadak tankeak eta buldozerak erabilia 3,5 kilometro inguru suntsitu ostean.

AEB Ameriketako Estatu Batuetan ere armak PANentz zirela dioen Israelen tesiarekin bat egiten hasiak dira. Hala, George W. Bush presidenteak atzo adierazi zuen «susmoa» zuela ontzian zeuden armek Ekialde Hurbilean «terrorea hedatzea» zutelara xede. Arafat auzi horrekin zuzenean nahastu ez bazuen ere, hark indarkeriaren aurka gogorrago egin behar zuela ohartarazi zuen berriro. Ekialde Hurbilerako AEBetako ordezkari berezi Anthony Zinni baldintza egokiak daudenean itzuliko zela eskualdera, iragarri zuen gainera. Astelehenean itzuli zen Zinni AEBetara.

NEGOZIAZIOAK

Bilera ez ofizialak Hegoafrikan

Palestinako eta Israelgo hainbat ordezkari Hegoafrikako Johannesburgo hirian bildu dira azken hiru egunetan, Ekialde Hurbileko gatazka aztertzeko. Palestinako ministro eta negoziatzaile Saeb Erekat, Israelgo Legebiltzarreko eledun Avraham Burg eta Justizia ministro ohi Yossi Beilin Alderdi Labortar kideak izan ziren, besteak beste. Hegoafrikako presidente Thabo Mbekiren parte-hartzea izan zuten bilera ez ofizial horietan.

Ekialde Hurbilean indarkeria eteteko eta bi aldeek berriro negoziatioei ekiteko deia egin zuten parte-hartzaileek bilera ostean kaleratutako agirian. Adituek adierazi dutenez, bilkurak eragin gutxi izango du, Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen alderdiko kiderik ez baitzen izan bertan.

AEBetako Estatu idazkari Colin Powell zorrotzagoa izan zen. «Jasotzen ari garen eta gu garrantzen ari garen informazioak argi utzi du loturak daudela ontziaren eta PANen artean», adierazi zuen Powellek atzo. Era berean, Jasser Arafati auzi hori argi dezan presioa egiten jarraituko zuela agindu zuen Estatu idazkariak.

Ontziaren aferaren nondik norakoak aztertzeko ikerketa bat ireki zuen joan den astean PANeko presidentek. Hala ere, Palestinako Aginte Nazionalak ukatu egin du behin eta berriro auzi horrekin lotura duela.